

Martxoaren 4a eta apirilaren 26a bitarteko asteazken eta ostiraletan izango da

Vital Kutxaren Gizarte Ekintzak genero berdintasunari buruzko ikastaro bat antolatu du 55 urtetik gorakoentzat

- **Gai horri buruz adineko pertsonen, emakume zein gizon, zuzendutako lehenengo ekimena da, ikuspegi historiko handia izango duela ardatz**

Gasteiz, 2015eko otsailaren 10a.- Vital Kutxaren Gizarte Ekintzaren Mejora Programak hurrengo hileetan tailer bat antolatuko du; aitzindaria genero-berdintasunaren arloan, 55 urtetik gorako arabarrei baitago zuzenduta. Arlo horretan espezialista den Begoña Etayok ikuspegi historiko batetik hitz egingo du errealitate horretaz, antzinetatik eta gure garaietara hartuko baitu. Interesatuta dauden pertsonen jadanik izen eman dezakete, edo Kordoi Etxean (Aiztogile 24).

‘Emakumeen borroka berdintasunaren alde’ ikastaroa ez da foro feminista bat; aitzitik, haren asmoa da, parte-hartzaileei aukera ematea emakumeak historian zehar izan duen eginkizunaren bilakaera aztertzeko, oraingo egoera eta gaur egun etorkizunerako planteatu daitezkeen erronkak ezagutzeko helburu. Orobat, lehenengo aldia da halako ezaugarriak dituen jardura bat antolatzen dena, hots, bereziki zuzendua adinekoei, emakume izan zein gizon izan.

Egia bada ere, mugimendu feministak XVIII. mendetik datozena, sexu-berdintasunari buruzko diskurtso kritiko batekin, egia da, halaber, desberdintasunaren gaineko polemikak askoz ere atzeragotik datozena. Horrenbestez, bada, tailerrak Antzinako Erroma eta Grezia izango ditu abiapuntu, gero Erdi Aroari eta Errenazimenduari ere ezarriko die arreta, Europako lehenengo bolada feminista, Ilustrazioaren garaikoa, aztertu aurretik; edo Estatu Batuetako eta Britainia Handikoa, sufragismoaren lorpenekin.

Espainiako feminismoa, bere aldetik, egitarauaren bigarren zatian izango da protagonista. XX. mendera arte garatutako mugimenduen eragina II. Errepublikaren sasoian, Gerra Zibilean eta frankismoan emakumeak izan zuen estatusen islatu zen, garai batzuk, haiek, oso desberdinak arlo politikoan zein sozialean. Ikastaro horretan ezin egin barik utzi azterketa xehatu bat oraingo egoeraz, eta hori ere, ez aurretik María de Maeztu gasteiztar pedagogoen figura ezagutzeko geratu gabe.

Amaitzeko, parte-hartzaileek aukera izango dute emakumeek beste leku batzuetan, hala nola, Latinoamerikan, Afrikan, Asian, edo kultura musulmanean bizi duten errealitate



hurbiltzeko. 'Persépolis' filma ikusiko delarik, ondoren debate bat ere egin ahalko da berehalako etorkizun batean planteatzen diren erronkei buruz.

Begoña Etayo Ereñak izango du jarduera hori zuzentzeko ardura. Bazterketa-egoeretan dauden zenbait kolektiboren hezitzailea, Etayok bi hamarkada baino denbora gehiago darama genero-berdintasunaren, diskriminazioaren, emakumea ahalduntzearen, krisi ekonomikoa eta generoaren, feminismoa eta lankidetzaren, eta abarren gaietan murgilduta. Arlo horretan dituen ikerlanei (*'Mujer gitana'* —emakume ijitoa— edo *'Mujer y cárcel'* —emakumea eta espetxea—, besteak beste) gehitu behar zaizkie hitzaldi, solasaldi eta txosten ugari, bai eta mahainguru askotan parte izana. Orobat, 1994az geroztik zenbait ikastaro monografiko, prestakuntza osagarria auzo-etxeetan eta 'Feminismoa eta Lankidetzaren' eta 'Emakumeak gatazka erdian: emakumeen esperientzia eta errealitatea Afganistanen' Basauriko Ahalduntze Eskolan.

Izen-emateak, 35na euroan, irekita daude Kordoia Etxean, Vital Kutzaren Gizarte Ekintzaren egoitzan, (Aiztogile 24). Jendearentzako arreta-ordutegia da: astelehenetik ostegunera, 8:30 eta 14:00 bitartean eta 16:30 eta 19:00 bitartean, eta ostiraletan, goizez, 8:30 eta 14:00 bitartean.

- **Informazio gehiago:**

José Félix Aspizua

Mejora +55 Programen arduraduna

Vital Kutzaren Gizarte Ekintza

Telefonoak: 945 154 827 / 945 162 150